

Sexualitate anitzei arreta emanez ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiaren 2014ko Prestakuntza Planaren lehenengo eta bigarren ikastaroak egin dira Donostian eta Bilbon

Sexualitate anitzei arreta emanez ikastaroak egin dira Bilbon eta Donostian, 2014ko urtarrilaren 28 eta otsailaren 4, 11, 13, 20 eta 27an. Eragile sozializatzailleek gazteen sexualitateei arreta ematen jarraitzea da ikastaroaren helburu nagusia. Arreta hori lantzetik hasi behar da, identitate sexualean, desioaren orientazioan edo ahalmenetan dauden aniztasunak aintzat hartuta eta horien onarpena sustatuta.

Ikastaroa **Emaize Sexologia Zentroko** sexologoek eman dute.

37 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 51, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak, gizartearen eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 30 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Bestetik, % 11 gazteriaz aparteko beste eremu batzuetan (inmigrazioa, generoa, sexualitatea, drogomenpekotasunak, etab.) lan egiten dute.
- Azkenik, % 8 beste lanbide-profila dituzten lagunak izan dira.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, bosna orduko hiru saiotan banatua.

Ikastaroko ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (Otik 10era bitarteko eskalan):

